



**2018KO MARTXOAREN 9KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko martxoaren bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Marian Zufiria Apeztegia.

Bere ezin etorria adierazi du Joseba Imanol Aran Barandiaran zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko otsailaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 11 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA BAT EURO ETA LAUROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (7.661,98 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kulturako zinegotziaren proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

Jubilatuen elkartea.- Jubilatuen elkarteko jubilatuei, 2017ko San Mioletako jaien barruan, sagardo festa egunean, sagardo basoak saltzen aritzeagatik, 171 €ko diru laguntza ematea.

Mario Aragon de Bustos.- 2017ko San Prudentzio jaietan antolatutako helduen eta haurrenten tanborradarengatik, 2.707,96 €ko diru laguntza ematea. Lehen 1.700 € aurreratu zitzaionez orain 1.007,96 € ordainduko zaio.

IV.- EUSKERAKO DIRULAGUNTZAK .-

Euskerako zinegotziaren proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartzen du:

Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea.- 2017ko Gerriko Ikerlan bekarako diru laguntzaren bigarren zatia ordaintzea.



V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDAL A